

Hernaniko Altzueta sagardotegiak irabazi du Foru Aldundiaren Gipuzkoako XVI. Sagardo Lehiaketa

 Eka 3, 2017  Lehiaketak, Sagardoa  0 comments



Fraisoroko dasta-panaleko kideek erabaki dute zein den 2017ko Gipuzkoako sagardo onena.

Gipuzkoako Foru Aldundiaren Sagardo Lehiaketaren XVI. edizioaren finala gaur eguerdian egin da Donostiako Gastronomiazko Euskal Anaiartean. Aurten, Gipuzkoako hemezortzi udalerritako hogeita bederatzi sagardotegik eman zuten izena, eta gaurko lehian 6 sagardotegi finalistak parte hartu dute: Aburuza, Atzueta, Etxeberria, Gartziategi, Gaztañaga eta Sarasola. Aldundiko Fraisoroko dastagunean ikasi eta diplomadun diren dastatzaileek osatutako epaimahaiak aukeratu du irabazlea. Hau izan da epaimahaiaren emaitzaren arabera sailkapena:

1. **Altzueta sagardotegia:** 82 punturekin.
2. **Aburuza sagardotegia:** 80 punturekin.
3. **Sarasola sagardotegia:** 70 punturekin.

Aurtengo lehiaketako sagardogile irabazleak 3.000 euro eta txapela eskuratu du. Bigarren sailkatuak 1.500 euro, eta hirugarrenak, berriz, 1.000 euro. Lehen hiru irabazleek eskala ezberdinetara egina dagoen Donostiako Bidarte baserriko "Garralea edo karreto barrika" ezagunaren erreplika bat eskuratu dute. Sagardo Lehiaketaren "Foru Aldundiaren" sari nagusia Ainhoa Aizpuru, Ekonomia Sustapena, Landa Ingurunea eta Lurralde Orekako diputatuak eman du. Lehendabiziko hiru postuetan sailkatuan izan ez diren finalistek, diploma bana jaso dute.

Lehiaketa honek bi helburu nagusi ditu: ekoizpen prozesuan sagardogileak egin duen lanaren balioa nabarmentzea eta botilaratutako sagardoaren kalitatea saritzea, bai ikuspegi organoleptikotik bai analitikotik aztertuta.

Iturria: www.gipuzkoa.eus

Lehiaketako parte-hartzaileen sagardotegietako kupeletatik edo barriketatik hartu ziren laginak eta horiek Fraisoroko laborategian azertu zituzten. Aurtengo sagardoetan 15 parametro neurtu dira, baina analitika fasean lau bakarrik hartu dira kontuan: azidotasun lurrunkorra, azukrerik gabeko guztirako estraktu lehorra, metanola eta glukosa-fruktosa. Sagardotegi bakoitzak aukeratzen zuen zein upeletatik hartu behar zen sagardoa eta bakoitzetik hamahiruna botila hartu ziren. Apirilean jaso ziren botila horietatik bina Aldundiko Fraisoro laborategira bidali ziren aztertzerara. Etiketa berdinak jartzen zaizkie botila horiei dastatze fasean identifikatuak izan ez daitezzen.

Bilatzailea

<input type="text"/>	Bilatu
----------------------	--------

Kategoriak

Agenda

Argitalpenak

Azokak

Berriak

Ekitaldiak

Erakusketak

Esperientziak

Formazioa

Gastronomia

Historia

Kultura

Lehiaketak



[Museoak](#)[Sagardoa](#)[Sagardotegiak](#)[Sagarra](#)[Sagastia](#)[Turismoa](#)

Artxiboak

ZATOZ ETA GOZATU

Kale Nagusia, 48

**SAGARDOAREN
LURRALDEA**
el territorio de la uva

20115

Astigarraga

Gipuzkoa

LAGUNTZA BEHAR DUZU?

 **943 550 575**

JARRAI IEZAGUZU...



ESPERIENTZIAK

[Zure plana erreserbatu](#)[Neurrira egindako esperientziak](#)[Hautatutako ibilbideak](#)[Beste proposamenak hemendik gertu](#)[Nola mugitu](#)[Non lo egin](#)[Gidak eta informazio praktikoa](#)

SAGARDOTEGIAK

[Sagardotegia erreserbatu](#)[Sagardotegia aukeratu](#)[Garraioa sagardotegietara](#)[Sagardotegiaz gozatzeko gomendioak](#)

SAGARDOETXEA

[Sagardoetxea - museoa](#)[Erakusketa eta bisita guneak](#)[Bisita motak](#)[Nola iritsi eta sarbideak](#)[Tarifak eta ordutegiak](#)[Bisita erreserbatu](#)[Bisita birtuala](#)[Dokumentazio Zentroa](#)[SAGARDO FORUM](#)[AGENDA](#)[BLOGA](#)[HEDAPENA](#)[Informazio orokorra](#)[Boletina](#)[Privacidad - Condiciones](#)



EUSKADI
BASQUE COUNTRY



© 2019 Sagardun Partzuergo publiko-pribatua
LEGEZKO INFORMAZIOA

[NOR GARA](#) [PROIEKTUAK](#) [AKORDIOAK](#) [KONTRATATZAILEAREN PROFILA](#)

